

HERRI ADMINISTRAZIOETAN HIZKUNTZA NORMALIZATZEKO ZUZENDARITZAREN TXOSTENA

Espedientea: DNCG_LEY_2823/19_04

Haur eta Nerabeen Lege Proiektuaren berri jaso dugu bide telematikotik Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzan apirilaren 25ean Tramitagune tresna informatikoaren bitartez, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saileko Familia eta Haurren Zuzendaritzatik bidalita, derrigorrezko txostena emateko eskatuz.

Eskaera horri erantzunez, xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezartzen duen azaroaren 6ko 233/2012 Dekretua, eta Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen apirilaren 11ko 82/2017 Dekretuaren 14.1) artikulua oinarri hartuta, txosten hau ematen dut:

a) Hizkuntza arloko araudiaren betetze maila.

Abuztuaren 31ko 128/2007 Dekretuak xedapen orokorrak egiteko prozeduran euskararen erabileraren normalizazioaren ikuspegia txertatzeko araubidea ezarri zuen: *“euskararen erabileraren normalizazioaren arloan eskumena duenak araua prestatzeko hasierako fasean esku hartu ahal izan dezan”*. Azaroaren 6ko 233/2012 Dekretuak, aurrekoa indargabetuz, bere 4. artikuluan eskaera egiteko epea ezartzen du:

“Proiektua izapidetzen ari den sailak egingo du aholkularitza txostena emateko eskaria, hori taxutzeko espedientea behin behinekoz onartzeko agindua publiko egin ondoren, eta instrukzioa egin duen saileko zerbitzu juridikoak dagokion txosten juridikoa eman ostean”

Izapidetutako dokumentuetan jasotzen denez, aztertzea eskatzen zaigun xedapenaren alde aurreko onarpena otsailaren 21ekoa da eta martxoaren 7koa Zerbitzu Juridikoaren txostena. Bete da beraz aipatu Dekretuak xede honekin arautua.

Bestalde, aipatzekoa da hasieratik zintzilikatu direla Lege Proiektuaren euskarazko zein gaztelaniazko zatiak; beraz, bete dela abenduaren 22ko 8/2003 Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren Legearen 7. artikulua. Artikulu hori jarraiki, alde aurreko onarpenak legearen testu osoari buruzkoa izan behar du; euskarazko zein gaztelaniazko zatiak barne.

Xedapen hori betearaztera begirakoa da Eusko Jaurlaritzak 2013ko maiatzaren 14an hartutako Erabakia, lege, legegintzako dekretu, dekretu edo agindu izango diren xedapen orokorrak bi hizkuntzetan idazteko neurriak onartu zituena:

“betiere dagozkion negoziazio, audientzia eta kontsultak egiteko izapideak egin baino lehenago; izapide horiek guztiak ele bitan dagoen testuarekin egin beharko



dira. Ondorengo instrukzio faseetan ere, derrigorrezko txostenak eta irizpenak eskatzeko orduan, bi hizkuntza ofizialetan idatzitako testua bidaliko da.”

Ildo beretik, izapidetzearen baitan jasotako txostenek testuaren zati biak hartu beharko dituzte kontuan eta, urratsez urrats, egokitzapenak bietan egin beharko dira. Tramitazioaren baitan egiten diren moldaketak testuaren zati bakarrean burutzea (usadioak ikusita, gaztelaniazkoan oro har) eta amaieran horren itzulpena egitea lege urraketa litzateke; horrelakoetan, prozeduran erabilitako hasierako testuaren erdia alboratuz (euskarazko zatia, adibidez), izapidetzearen ibilbidea jarraitu ez duen testu berri bat onartzen delako.

b) Euskararen erabileraren normalizazioaren gaineko eragina.

Lege proiektuaren xedea, 1. artikuluan esaten den bezala, hurrengoa da:

Hona hemen lege honen xedea:

a) Euskal Autonomia Erkidegoaren lurraldean bizi diren edo dauden haur eta nerabe guztiei bermatzea ordenamendu juridikoak aitortzen dizkien eskubide eta askatasunak egikaritu ahal izatea.

b) Erantzunkidetasunaren ikuspegitik, ekintza publikoko sektore-eremu guztietan botere publikoek garatu behar dituzten ekintzak zehaztea, aurreko letran ezarritako helburua lortzeko.

c) Jarduketa-printzipioak zehaztea eta sustapen-, prebentzio-, arreta- eta babes-jarduketa guztiei dagokien eskumen-esparrua ezartzea, baita koordinazio-, lankidetzeta- eta partaidetzeta-egiturak ere.

Aztergai dugun Lege Aurreproiektuan hizkuntzari buruzko hainbat aipamen daude. Hasieratik ezartzen da hizkuntzagatiko berezikeriarik ezaren printzipioa xedapen orokorretan. Testuan zehar, hainbat artikuluetan, adingabeekin izaten diren komunikazioetan eta ematen zaien informazioetan uler dezaketen hizkuntza bat eta hizkera bat erabiliko dela ezartzen da. Gainera, adingabeen hizkuntza babestea ezartzen da haurren edo nerabeen interes gorena gailentzeko eskubideen artean. Aipatutakoa egokia dela iruditzen zaigu euskara berariaz aipatu ez arren.

Hala ere, 23.artikuluak, haurren eta nerabeen eskubideak egikaritu ahal izatea bermatzeko neurriak ezartzen dituenak, administrazio publikoetatik informazioa jasotzeko eskubidea aitortzen die formatu eskuragarri eta ulergarrian eta beren inguruabarretara egokituta, baina ez du hizkuntzarekiko erreferentziarik egiten. Horregatik, artikulua horren lehenengo atalaren hurrengo erredakzioa proposatzen dugu:

23. artikulua.– Eskubideak egikaritu ahal izatea bermatzeko neurriak.

1.– Haurrek eta nerabeek eskubidea dute beren eskubideak eraginkortasunez egikaritzeko eta defendatzeko, informazioa administrazio publikoetatik jasotzeko,

*formatu eskuragarri eta ulergarrian eta beren inguruabarretara egokituta, **haien hautatzen duten hizkuntza ofizialean**, baita laguntza eta sorospen egokia jasotzeko ere, beharrezkoa denean. Horretarako, honako hauek egin ahal izango dituzte:*

a) Kasu bakoitzean eskumena duten administrazio publikoen babesa eta tutoretza eskatzea.

b) Haien ustez beren eskubideak urratzen dituzten egoeren berri ematea Ministerio Fiskalari, dagozkion akzioak abiaraz ditzan.

c) Arartekoari aurkeztea beren kexak.

d) Beren eskubideak eraginkortasunez egikaritzeko beharrezkoak diren gizarte-baliabideak administrazio publikoei eskatzea.

e) Beren eskubideak eta interesak babestu eta defendatzeko beharrezkoak diren akzio judizial eta administratiboei ekiteko lege-laguntza eskatzea, Doako Laguntza Juridikoari buruzko urtarrilaren 10eko 1/1996 Legean aurreikusitakoaren arabera.

f) Beren eskubideak eta interesak defendatzaile judizial baten bidez defendatzeko eskatzea. Horretarako, interes-gatazka egon badaiteke adingabearen eta guraso-ahalaren, tutoretzaren edo zaintzaren titularren artean, edo adingabearen eta adingabearen zaintza edo tutoretza duen adingabeen babeserako Entitate Publikoaren artean, adierazi beharko zaio defendatzaile judizial bat izateko eskubidea duela, indarrean dagoen legerian aurreikusitako moduan.

Nolanahi ere, entitate publiko baten zaintzapean edo tutoretzapean dagoen adingabe batek entitate hori, haren zerbitzuko langileak edo entitatearen zerbitzu edo baliabideetan lanean ari diren pertsonak salatzen baditu, haren aurka indarkeriaz jardun dutelako, ulertuko da interes-gatazka dagoela haurraren edo nerabearen eta entitate publikoaren artean.

g) Haurren Eskubideen Batzordeari banakako salaketak aurkeztea, Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenarekin eta hura garatzen duen araudiarekin bat.

Aurrerago, testuan, 65.artikuluak honako hau xedatzen du:

65. artikulua.– Hezkuntzaren esparruko jarduketa-printzipioak.

Haur eta nerabeen hezkuntzarako eskubidea sustatzeko, Eusko Jaurlaritzak, hezkuntzan eskumena duen sailaren bitartez, honako printzipio hauetara egokituko ditu bere jarduketak:

a) Haurren eta nerabeen hezkuntza-prozesua haien eboluzio-egoerara egokitzea.

b) *Ikastetxeetako hezkuntza– eta curriculum–proiektuetan honako alderdi hauek sartzea, eta eskolak ematean, eskola–bizikidetzan eta hezkuntza–komunitate osoaren pertsonen arteko harremanetan modu aktiboan sustatzea:*

- *Indarrean dagoen ordenamendu juridikoan jasotako oinarritzko printzipio, eskubide eta askatasunekin bat datozen balioak sustatzea eta defendatzea, bereziki tolerantzia, elkartasuna, ekitatea eta bereizkeriarik eza errespetatzea, lege honen 13 b) artikuluan araututako moduan, herritartasunez, zibismoz eta bakearen kulturaren oinarrituta jokatzeko oinarri hartuta.*
- *Genero–berdintasunaren printzipioan oinarritutako jarrera ez–sexistak eskuratzea, eta harreman afektibo–sexuala eta sexu–orientazioa adierazteko moduak errespetatzea.*
- *Euskal Autonomia Erkidegoaren askotariko gizarte– eta kultura–errealitatea ezagutzeko, eta, batik bat, **Euskal Autonomia Erkidegoko hizkuntza ofizialak ikasten direla bermatzea.***
- *Gertuko kultura–ingurunea ezagutzeko, eta beste kultura–eremu batzuen aurrean jarrera irekia edukitzea, kulturartekotasunaren ikuspegitik.*
- *Ingurumen naturala errespetatzea, garapen jasangarriaren oinarrien gainean.*

c) *Ikastetxeetan pixkanaka proiektu pedagogiko bat sartzeko, haurren eta nerabeen eskubideak eraginkortasunez egikaritzea sustatzeko eta eginbeharrak betetzeko eta erantzukizunak beren gain hartzeko inguruan antolatzen diren ikastetxearen funtzionamendua.*

d) *Ikastetxeetan aukera–berdintasuna errespetatzea eta sustatzea, haur eta nerabe guztiei hezkuntza–aukera berdina eskainiz, eta, horretarako, bereizkeria positiboko ekintzak antolatuz, inklusiboak, hezkuntza–prozesuari laguntzen diotenak eta eskola–porrotaren arriskuari aurrea hartzen diotenak, batez ere ekonomia, gizarte edo kultura maila apalagoa dutenentzat eta zailtasun pertsonalak dituztenentzat. Horretarako, hezkuntza–laguntzako berariazko premiak dituzten ikasleentzako irakaskuntza egokitzeko beharrezkoak diren baliabide materialak, antolakuntzakoak eta profesionalak antolatu behar dira, eta laguntzak eskolatzearen hasieratik indibidualizatu egin behar dira arreta goiztiarraren esparruan, osasun–zerbitzuekin eta gizarte–zerbitzuekin koordinatuta.*

e) *Haurrek eta nerabeek beren hezkuntza–prozesuan eta ikasleentzako elkarrekin parte har dezaten sustatzea, eta ikasleentzako ekimen, iradokizun, gomendio edo kexa mota guztiak jasotzeko eta bideratzeko mekanismoak eta komunikazio–kanalak prestatzea.*

f) *Gurasoek, legezko ordezkariak eta harreragileak beren ardurapeko haurren eta nerabeen eskola–hezkuntzaren jarraipena egiteko eta bertan parte hartzeko duten eskubidea errespetatzea eta sustatzea, hezkuntza–araudiak ezartzen duen moduan.*

Aproposa iruditzen zaigu b) atalean ezarritakoa bi hizkuntza ofizialak ikastea bermatzeari buruz, izan ere, hezkuntzaren eremua estrategikoa da euskararen sustapenerako.

Beste alde batetik, 88. artikuluan, informaziorako eskubidea sustatzeko jarduketak ezartzen direnean, komenigarria izango litzateke gogoraraztea 10/1982 Legeak, euskararen erabilera normalizatzeko oinarrikoak, 5.2 artikuluko c) atalean, Euskal Herriko herritarrek aldizkariak eta irrati-telebistetako eta beste hedabideetako emanaldiak euskaraz jasotzeko eskubidea dutela aitortzen duela. Euskarazko edukiak jasotzeko eskubideak eduki horiek sortzeko beharra dakar; beraz, 88.artikuluan beste atal bat txertatzea proposatzen dugu jarraian formulatu dugun testuarekin edo antzekoa den batekin:

**) Haur eta nerabeek euskarazko hedabideek sortutako edukiak eskura izatea bermatzea.*

Halaber, testuan kide-anitzeko balorazio-organoen osaera Foru-aldundien arauen bitartez eta Nazioarteko Adopzioarako Euskal Autonomia Erkidegoko Batzorde Teknikoaren osaera Eusko Jaurlaritzaren erregelamendu bitartez aurreikusten da. Komenigarria izango litzateke testuan gehitzea organoen osaerari buruz sortzen den araudiak kontuan hartu beharko duela izendapenak egiterakoan kideek Euskal Autonomia Erkidegoko bi hizkuntza ofizialetan nahikoa gaitasun edukitzea. Baita, organoetako kideek euren jardunean hizkuntza ofizialetako edozein erabili ahal izango dutela. Berdina gomendatzen da VIII. Tituluan aurreikusitako organoen kasuan.

Amaitzeko, Lege Aurreproiektuko hainbat artikuluetan dibulgazio-ekintzak, jarduerak eta kanpainak aurreikusten dira. Euskararen erabilerearen normalizazioaren ikuspegitik gomendagarria litzateke guzti horiek egitean euskaraz ere egingo direla bermatuko dela jasotzea testuan.

Adeitasunez,

Joseba Lozano Santos
Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko zuzendaria